2021eko ekainaren 7ko Herriko Kontseiluaren txostena

Présents / Hor zirenak : Mmes ECHEVERTZ Chantal, DARGUY Anne Marie, DUHALDE Kattalin, OXARANGO Maite, PEREZ Karine, SABALOUE Virginie, et MM., BARNECHE Patrick, BISCAY Samuel, HERNANDEZ Frédéric, MONGABURE Philippe, OTEIZA Ramuntxo, BARBIER Koxe, PARACHOU Hervé
Absents excusés / Ezin etorria jakinarazia zutenak : ETCHEVERRY Sabine

1. 2021eko obren programa aurkeztu du jaun auzapezak.

Obra horiek plazatik aski urrun dira. 2021eko bide obren finantzaketa programa onartu da eta departamenduari dirulaguntza galdatzeko baimena eman (42 000 €-an mugatua den zenbatekoaren % 25).

2021eko bide obren programa			
	Bideen izena	**Zer obra mota**	**Obren kostua (BEZa gabe)**
1	Haranburuko bidea	Bi geruzako azaleko estaldura - Monguillot-Minjou – Haranburia aitzinean	9 285,45
2	Aime bidegurutzea Ejiptoko bidea	Harrobi ekaien hornitzea eta plantan ezartzea	4 955,80
3	Mizpirralde aitzineko gurutzearen inguruan	Estaldura - euri-uren hodia	2 503,41
4	Garraldako patarra	Ur hodia + harrobi ekaien hornitzea eta plantan ezartzea	11 282,05
5	Bikaldegiko bidea	Estaldura	4 765,55
6	Lamixkarreneko bidea	Estaldura – ur hodia	8 606,60
9	Arroilak	Arroilen garbitzea	5 000,00
OBREN ZENBATEKOA OROTARA			**46 398,86**

2. Eskola pribatuko IKKEri dirulaguntza: 2021eko zenbatekoa - abantzua

Urte guziez bezala, Sortzez Garbia eskolako IKKEri 10 000 € emanen zaio, eta abantzu bat eginen diogu, hots, 2020an bozkatu prezio finkoaren erdia.
2021eko finkatu den zenbatekoari kenduko zaio.

3. Lurralde hizkuntzen eta hizkuntza gutituen europar gutunaren tokiko testua

Jaun auzapezak aurkeztu du Aiherrako herriaren engaiamendu proposamena:

2019ko abenduaren 9ko erabakiaren ondotik, Aiherrako Herriko Etxeak hizkuntza kontratua izenpetu du Euskal Elkargoarekin. Gomendio franko jadanik betetzen genituen, baina inportantea zen lagunduak izatea eskaintza elebidunaren plantan ezartzeko herritarrekin harremanetan diren zerbitzu estrategikoetan.

Itsasuko Herriko Etxearen ekimen **bikainari** esker, beste herri zenbaitek tokiko elkargoentzat eta herriko etxeentzat egina den lurralde hizkuntzen eta hizkuntza gutituen europar gutunaren berpizteko xedea agertu dute.

Hizkuntza politikaren oinarria finkatzen du, eta elkargoek dute plantan ezartzekoak diren neurrien ardura.

Hastapeneko proposamenaren arabera 49 engaiamenduetarik 35 hautatu behar ditugu.

Laguntzaile talde bat plantan ezarriko da bilan baten egiteko 24 hilabeteren buruan, hobekuntza kontratuaren karietara egiten den bezala.

Kattalin Duhaldek eta Samuel Biscayk dokumentuan aurreikusiak diren ardatz nagusiak aurkeztu dituzte.

Ekain bukaeran edo uztail hastapenean, prentsaurreko bat emanen da gutuna izenpetu duten lehenbiziko herrien engaiamenduen aurkezteko.

Gutunak Europako Kontseiluari emanen zaizkio egiazkotu ditzan, eta gero herriko kontseiluetan bozkatuko dira irail bukaeran edo urri hastapenean.

Azkenik, izenpetze ofiziala azaroan edo abenduan eginen da Europako Kontseiluko teknikariekin, izenpetze bakar baten egiteko. Baina aurreikusia den egutegi hori oraino alda liteke.

4. Xokoa baserri-bidexkaren parte baten besterentzea: Diratchette jaunaren galdea

2021/05/14an igorri gutunaren bidez, Hazparnen bizi den Hugo Diratchette jaunak galdegin digu berea den Xokoa etxearen mugako baserri-bidexka zatiaren erostea.

Etxe horretarako hirigintza instrukzio dosier bat ikertzen ari dira. Gainera, badu aspaldi publikoak bidexka ez duela erabiltzen eta etxe horretan bururatzen dela.

Eztabaida bizi baten ondotik, biltzarrak printzipiozko akordio bat eman du, salbu boz batek. Iragan hurbilean onartu beste salmenta batzuen jarraikitasunean gelditzen gara.

Diratchette jaunari 0,80 €/m² salduko zaio; prezioa kontrolatzekoa da Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren baitan.

Salmenta horri lotuak diren gastu guziak Diratchette jaunak ordaindu beharko ditu (inkestagile mandatariari doazkion gastuak, prentsan argitaratzeko gastuak, geometraren gastuak), eta salmenta agiria molde administratiboan idatziko da.

Jaun auzapezak erabaki bat hartuko du doakion inkesta publikoa zabaltzeko.

5. Gainerako gaiak

- Ekainaren 20 eta 27ko bozkak bereziak izanen dira aurten, osasun neurriengatik. Bi itzuli ukan genitzake. Bozka bulegoaren atxikitzen eta bozen kontatzen lagundu nahi gaituzten herritarrak ongi etorriak dira.
- Gobernamenduak plantan ezarri urraskako deskonfinamenduari doakionez, herriko elkarte zenbait guragana jin dira haien aktibitateak berriz hasi nahi baitituzte.

  Eztabaidatu ondoan, Herriko Kontseilua dinamismo berpizte horren alde agertu da, antolatzaileek indarrean diren osasun protokoloak artoski errespetatzen baldin badituzte. Espazio publikoa baldintza horietan bakarrik erabiltzen ahalko da.

  Bestalde, kontseilari batzuk harrituak dira bestak ospatzen baitira osasun neurriak izanik ere. Zaila da pribatuan esku hartzea, baina fermuki galdeginen da neurri horiek aplikatzea.
- Herriko Etxetik kanpoko batzordearen lanaren aurkezpena Beltzagitearen zaharberritzeari buruz. Frédéric Hernandezek proiektuaren elementu nagusiak aurkeztu ditu, bistan da, eraikitzaile profesionalekin oraino zehaztu beharko dira.

  Etxe beherea antola liteke MAM moldean bilduak diren haurtzainen errezibitzeko. Lehen estaia osasuneko profesionalen errezibitzeko balia liteke bereziki, parte komunekin. Azkenik, bigarren estaia osoan apartamendu bat egin liteke etxekidetza egiteko, ala bi apartamendu herriko gazteak memento batez errezibitzeko.
  Lehengo eraikin atxikian/okindegian bi apartamendu ttipi egin litezke, adineko pertsonendako.
  Guri dagokigu proiektu horren ontzea eta agian 2022an plantan ezartzea.

Bilkura 22:30ean bururatu da

Auzapeza,